

# KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTAK ATEAK ZABALDU DITU!



**2021eko irailaren 11ean irekiera ekitaldiarekin batera Kulturarteko Plaza Feministak atek zabaldu zituen. Herritarrek beso zabalik hartzeko prest zegoen espazioa, baina, egun hura ibilbide luze eta oparo baten hasiera besterik ez zen izan.**

Egun horretara iritsi aurreko bidea ez da edonolokoa izan. Askotariko prozesu eta pausuak eman ditugu gaur egun arte. Izan ere, gure herrietan eta hirietan horrelako topaguneak izateko aldarrikapenari erreparatzen badiogu, ezinbestean denboran atzera egin beharra dugu. Mugimendu Feministak zenbait aldarrikapen eta eskaera egin izan ditu historian zehar, eta horietako bat izan da topagune propioa izatearena hausnartzeko, formatzeko, artikulatzeko eta sartzeko. Hemen inguruan zabaldutako horrelako lehen bi espazioak Arrasateko Emakumeen Txokoa eta Ermuko Emakumeen Topalekua izan ziren, 2003an. Geroztik, beste hainbat herri eta hirietan sortu dira, besteak beste, Donostian, Basaurin eta Azpeitian.

Hernanin, 2001. urteko apirilean *Berdintasun Arloa* sortu eta gutxira, *Berdintasun Kontseilua* osatu zen.





Geroztik, Berdintasun Kontseiluak dinamika eta eskaera andana egin ditu eta bultzada handia eman dio feminismoari herrian. Bide horretan, *Plaza Feminista* mugarririk garrantzitsua izan zen. 2012. urtean Udaleko Berdintasun Arloa espazio berrira lekualdatu zen: Plaza Feministara. 2013ko martxoan irekiera ofiziala egin zitzaion. Nahiz eta zerbitzu zabaleko eraikin propioa ez izan, bazen erreferentziako gunea eta eragile feministak biltzeko lekua. Bere funtzioa betetzen zuen arren, txiki geratu zen Plaza. Beraz, Plaza Feministako esperientzia hark indartu egin zuen proiektu zabalago baten beharra eta aldarrikapena.

2015. urtean Udal gobernuak Emakume Etxea egiteko konpromisoa hartu zuen eta espazio berria egokitu zitzaion: Florida auzoa 28an.

Etxe horren ezaugarriak nolakoak izango ziren pentsatzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko 2016ean partaidetza prozesua abiatu zuten Berdintasun Arloak eta Berdintasun Kontseiluak. Parte hartzea zabalago izan zen eta lan-talde eragileak osatzeaz gain, lan-saio irekiak egin ziren proiektuaz norberak zituen ametsak partekatzeko eta espazioaren identitateaz hitz egiteko. Prozesuak elkar ezagutzeko, sareak egiteko eta elkarrekin pentsatzeko aukera paregabea eman zigun eta ilusioa eta gogoia piztu zituen. Tartean, jardunaldi batzuk ere egin ziren.



Bost lan saio zabal eta bilera eta hizketaldi luzeen ondoren, eraikinaren berriztatze eta moldaketa lanak hasi ziren. Hainbat faktore tarteko uste baino luzeagoak izan ziren lan hauek.

Urte batzuen ondoren eta eraikina erabat eraldatu, irailaren 11ean irekiera festa egin zen eta Kulturarteko Plaza Feministak ateak zabaldu zizkien herritarrei. Geroztik egun osoan zabalik dago eta askotariko zerbitzu, ekimen eta baliabideak topa ditzakegu bertan. Koordinatzaileek egun osoz ematen dute arreta eta informazioa.



Kulturarteko Plaza Feminista definitzeko hainbat saio eta jardunaldi egin ziren.





Kulturarteko Plaza Feminista feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako espazioa da. Hernaniren eta munduaren eraldaketan alea jartzera dator eta hausnarketarako, formakuntzarako eta ekin-tzetarako erreferentzia gunea izan nahi du. Emakumeen\* ahalduntze prozesuak sustatzeaz gain, kultura aniztetako pertsonen topagunea da. Gainera, feminismoan aritzen diren eta arrazakeriaren aurka lanean ari diren herri-eragileentzako tokia da; horien arteko sarea eta aliantzak egiteko. Bestalde, indarkeria matxistaren aurka lan egiteko tokia izan nahi du. Emakumeak\* dira protagonista nagusiak, halaber, arreta edo informazioa nahi duen herritar ororentzat ateak zabalik daude.

Gaur-gaurkoz, baliabide eta zerbitzu hauexek topa ditzakegu: Emakumeentzako Jabetze Eskola, sexu eta bikote aholkularitza, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, elkar zaintzarako talde iraunkorra, dokumentazio gunea, erakusketak, hitzaldiak, ma-hainguruak eta tailerrak. Horrez gain, AMHER-SOS Arrazakeriaren bulegoa eta Berdintasun, Kulturartekotasun eta Lankidetzaren Arloen Udal bulegoa kokatzen dira bertan.

Ezin aipatu gabe utzi eraikina Passivhaus-a dela, hots, bere energia kontsumoan eraginkorra den etxea da. Arkitektura bioklimatikoaren printzipioak erabiliz, ingurune baldintza energetikoak aprobetxatzen ditu eta kontsumoa murriztu egiten du.

Hainbeste gura izandako gune honen hasiera besterik ez da hau. Eraikina bizitzaz eta esanahi anitzez betezen ari da, egunero-egunero. Kontraesanak, ozto-poak eta buruhaustek ez zaizkio faltako bidean, ezta ilusioa, elkarrikketa eta eraldaketarako grina ere.

### ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:30-21:30  
Larunbatetan 9:30-13:00/16:00-19:00

### Informazioa, arreta eta hitzorduak:

943 33 70 17  
kulturartekoplazafeminista@hernani.eus

### Jarrai gaitzazu:

Facebook: Hernani Kulturarteko Plaza Feminista  
Twitter: @HernaniPlazaFem